

«Gehiengoa izan nahi badu, EH Bildurekin hitz egin beharko du PSNk»

Unai Hualde • Nafarroako Parlamentuko presidentea

Asteazkenean galdutzat eman zen dena, baina azken unean askatu zen korapiloa. Hualderen iritziz, «itxaropen izpi» bat sortu da gobernurako negoziatioetan aurrera egiteko. Navarra Suma urduri nabari du:

Joxerra Senar Iruñea

Zorion mezu ugari jaso du joan den asteazkenetik Unai Hualdek (Iruñea, 1976), EAJren NBBko presidentea. Azkeneko unean, PSNk babestu egin zuen Geroa Baiko hautagaia Nafarroako Parlamentuko Mahaiko presidentea izateko. Bigarren presidentea euskalduna izango da Hualde -aurrena, Ainhoa Aznarez-. Etzi bilduko da lehen aldiz parlamentuko mahaia, eta ostegunean eta ostiralean talde bakoitzeko ordezkariekin batzartu nahi du; inbestiduraren aukerak aztertzeke. Eskuina urduri nabari du orain. **Zalaparta handia eragin du asteazkenean gertatutakoak.**

Badakigu Navarra Sumak beste aurreikuspen bat zuela. Azkenik, itxaropen izpi bat sartu da, gobernu aurrerakorian bide bat egiteko. **Udaletan gertatutakoak konfiantza kolokan jarri al zuen?**

Bilerak hastean, bagenekien zer gertatu zen 2007ko abuztuan. Badakigu UPNren eta PSNren arteko betiko konbinazio hori apurtu egin beharra dagoela ziklo berri bati ekiteko. Dena zalantzan jartzen duzu: azkenera arte joango al dira? Zer gertatuko da Ferrazekin? Udaletan gertatutakoaren ondoren, argi genuen edo zerbait gertatzen zela mahaiaren osieran edo 2007ko abuztuko erreplikaturako zela.

Nolakoak izan dira mahaiaren inguruko negoziatio horiek?

Batetik, PSNren eta Ahal Duguren ikuspegitik, etorkizuneko gobernu horren isipilu izan beharko

litzateke mahaia. Gure ikuspegitik, mahaia gehiengoa islatu eta egonkortasuna irudikatu behar zuen. Navarra Sumaz gain, EH Bildu ere egon behar zen, bi indar horiekin osa daitekeelako 26ko gehiengoa. Apustua Navarra Sumaren alternatiba erakitzea bada, EH Bildurekin akordioa lortzea ezinbestekoa da.

Arriskuan egon al zen gobernu osatzeko oraingo negoziatioak?

Parlamentuko osoko bilkuran bertan lortu zen akordioa, *in extremis*. Aurretik, akordioa hautsita zegoela iragarri genuen, dena galdutzat eman genuen. Batzuek ez zuten hain argi negoziatioa hautsiko zela, baina guretzat oso zaila zen elkarrizketekin jarraitzea gobernu bat osatzeko.

Azken unean izan zen, baina zenbateraino irudikatu nahi izan zuen horixe bera PSNk?

«Batzuek ez zuten hain argi negoziatioa hautsiko zela, baina guretzat oso zaila zen elkarrizketekin jarraitzea»

«Gure iparorratza azken lau urteotako neurriak dira. Urrats garrantzitsu batzuk egin dira, eta ez dugu atzera egingo»

PSNrekin dudaren esperientzia ikusita, beti azkenera arte eraman du negoziatioa. Bagenekien mahaiko presidentea hautatzeko bigarren itzulua iristean Navarra Sumaren eta Geroa Bairen artean aukeratu beharko zuela PSNk, eta bere apustua erakutsi. Abstenzioarekin edo boto zuriarekin

Navarra Suma ateratzen zen garaile. Beraz, horren alde eginez gero, sinesgarritasunik ez lukete gero gobernu aurrera ateratzeko. Aukera hura aprobetxatu behar zen akordio bat lortzeko.

Akordioa lortu ondoren, zer pauso emango dituzue mahaiko kideen kopurua handitzeko?

PSNk txosten juridiko bat eskatu du nola egin ikusteko. Asteartean bilduko da lehen aldiz mahaiko eta eledunen batzordea, eta orduan ezagutuko dugu zerbitzu juridikoen ikuspuntua. Dirudenez, araudia aldatu beharra dago. Nafarroan, aniztasun handia dago, eta bost kideko mahaia txikia da. Ondo deritzogu araudia aldatzeari, gutxiengoan diren in-darrek ordezkari izan dezaten. **Mahaiko akordioa lortzeak zer ondorio izango du?**

Orain, beste atal batean sartzen gara. Zain gaude ea PSNren aurreneko zirriborroa zein den akordio programatikoa bat egiteko. Gure iparorratza azken lau urteotan hartutako neurriak dira.

Aurreko legealdian, PSNk eskuinarekin egin zuen bat askotan. Zer espero duzue orain?

Azken lau urte hauetan urrats garrantzitsu batzuk egin dira, eta ez dugu atzera egingo. Askotan, diskurtso batzuk erabiltzen dira; baina, egunerokoa, akordiorako puntu komunak daude. Alderdi sozialistarekin posible izan beharko litzateke ados jartzea.

Nolako gobernu eredua hobesten duzue?

Guk uste dugu, dagoen indar ko- rrelazioarekin, koalizio gobernu bat izan beharko lukeela, Geroa Bai barruan dela.

Aurreko legealdian beste formula baten alde egiteak zuen aurka egin dezake?

Orduan, alderdien kuotaren aur-



DOA ZAMALETA/FONU

ka egin genuen, gobernabidea zailtzen zuelako. Alderdi asko ginen. Uste dugu oraingo hau ez dela egoera berbera.

Orain arteko korapilo nagusia hor dago oraindik: PSNk ez du EH Bildurekin hitz egin nahi, baina horrek ziurtatzen du gehiengoa. Hori izango al da gakoa?

Legeak aurrera eramateko PSNk gehiengo parlamentarioa izan nahi badu, EH Bildurekin hitz egin eta eztabaidatu beharko du. Ez dago besterik. Navarra Sumaren jarrera kontrakoa izango da; ez du eskuzabaltasunik izango.

Zubi lana egin dezakezue?

Azkenean, aurreko legealdian, gobernu jardueraz gain, 90 lege aurrerako baino gehiago eraman ziren aurrera, eta lau alderdien artean bitartekaritza egin genuen. Horrek neke handia eragiten du, baina ondorioak, azkenean, denon onurarako dira.

Andoni Ortuzar EAJren EBBko burua lotu ditu Espainiako eta

Nafarroako gobernuen negoziatioak. Batak beste baldintzatuz dezake?

Nafarroan eskuineko gobernu bat izango balitz, oso zaila izango litzateke EAJk Sanchezekin eztabaidan jarraitzea. Orain, hark EAJrekin hitz egin behar du, eta ea zer hautatzen duen, zer babes eredu hartzen duen. Ciudadanosera joko balu, hemengo gobernabideak arrisku handiagoa izango luke. **PSNren aurka gogor jo du Navarra Sumak. Zer lortu nahi dute?**

Nafarroaren gaia berriz ere ustiatu nahi dute, Espainian botoak ematen dizkietela pentsatzen dutelako. Hori da estrategia.

Ezin da baztertu Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak berriro egitea?

Politikan, egun batean toki batean zaude, eta beste egun batean, beste batean. Hauteskundeak berriro egitea ez nuke baztertu, baina itxaropen handiagoa dugu gaur, astelehenean baino.

ARISTONDO
NEKAZALTURISMOA

Fotografi Bidea 70 10600
Tel: 943 21 55 58
www.aristondo.com

Gora Igeldoko jaiak!